

Clastrum Armonicum abesbatzak “ibilbide musikala” egingo du Arte Ederren Museoan

Azaroaren 23an izango da, 19:30ean, Jesus Guridi Musika Kontserbatorioan

Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a. - Arabako Clastrum Armonicum abesbatzak, Xabier Sarasuaren zuzendaritzapean, eta Ana del Val diputatuak zuzentzen duen Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak kontzertu bat antolatu dute, Arte Ederren Museoaren bitartez eta Jesus Guridi Musika Kontserbatorioaren lankidetzarekin. Kontzertuaren bidez “Ibilbide musikala Arabako Arte Ederren Museotik” egin nahi da, horixe baita haren izenburua eta xedea. Azaroaren 23an izango da, larunbatarekin, 19:30ean, kontserbatorioan. Sarrera doan izango da, lekuak bete arte.

Xabier Sarasuaren aginduetara, Arturo Goicoechea pianoan dela eta Enara Susano eta Carmen Ayastuy bakarlariekin, abesbatzak egi bihurtuko du José Ignacio Pérez Purroyren proiektua, eta ekitaldi berean bilduko ditu Mendebaldeko kulturaren garrantzitsuenak diren arteetako bi: pintura eta musika. Proiektuaren barruan 17 abesti daude, Arte Ederren Museoko obrek inspiratuak, eta abestiak entzungo diren bitartean, haien oinarri izan diren margolanen diapositibak proiektatuko dira. Hartara, entzuleak gai berera hurbiltzeko aukera izango du elkarren osagarri diren bi ikuspegitatik: pinturarenetik eta musikarenetik.

Clastrum Armonicum abesbatza Gasteizen sortu zen 2000. urtean. Hasiara batean lau pertsonaz osatutako ahots taldea zena berehala hasi zen handitzen eta, egun, ia 30 kide ditu.

19 urtean, abesbatzen talde jardueretan parte hartzeaz gain (Mesiasa, Carmina Burana...), musikarekiko pasioa agertu du bai denboran zehar gai bat (gaua, ardoa, askatasuna, maitasuna, Gabonak...) garatzea helburu zuten programa monografikoen kontzertuetan, bai garai, kultura edo eremu geografiko bereko erreperitorioetan: Santa Teresaren edo Aiala kantzilerraren garaiko musika, Barrokoko musika eta beste garai batzuetakoa, musika errusiar ortodoxoa, euskal musika...

Prensa Oharra Nota de Prensa

Emanaldiak eskaini ditu Gasteizen ez ezik, baita Frantzian eta Espainiako hainbat hiritan ere (Burgos, Zaragoza, Salamanca, Bartzelona, Iruña, Segovia...).